

Kultura

Gorakada antzerki taldeak erakusketa antolatu du San Agustinen 25. urteurrena dela-eta > 11



Goiuriko auzokideen salaketak aintzat hartu ditu epaitegiak > 6

Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko Jaurlaritzaren baimena baliogabetu dute

Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiak balio gabe utzi du Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko Eusko Jaurlaritzak emandako baimena. Goiuriko kofradiak eta auzokide batek aurkeztutako salaketak aintzat hartu di-

tu beraz, eta 2007tik aurrera emandako baimenak baliogabetu ditu. Auzitegiak ebazpenean dienez, "URA ur agentziako langileen aurkako errekusatzek ez tramitatzek legedia urratzen du".

Durangaldetik Saharara, kamioi bete elkartasun



Euskal Herritik abiatuko den Elkartasun Karabanagaz bat egingo du, zapatuan, Durangaldean bildutako laguntzak > 3

K.Aginako

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Durango > 2

Faustegoienako etxeek uste baino eskatzaile gutxiago dituzte

Berriz > 7

Aurrekontuetan Legaño auzoa konpontzea aurreikusi dute

Elorrio > 2

EBPN herritarren parte-hartzeagaz osatu dute

Durangaldea > 4

Ikastaroetako partaideen gehiengoak tabakoa utzi du

► Herririk herri

► DURANGO



Faustegoienako eremuan 118 etxebizitza egitea dago aurreikusita.

Faustegoienako etxeek, uste baino eskatzaile gutxiago

Faustegoienako proiektua fase bitan egitea erabaki dute; espero baino jende gutxiagok eman du izena, eta lehenengo fasean 70 etxe emango dituzte soilik

► MARKEL ONAINDIA

San Fausto auzoan, Faustegoienako proiektua fase bitan egitea erabaki zuen udalak joan zen egueneko batzarrean, EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin. Babeseko 118 etxebizitza egitea dago aurreikusita; horietatik hamasei alokairu sozialean, eta gainerakoak kooperatiba erregimenean. Bada, espero baino jende gutxiagok eman du izena, eta baldintzak ere ez dituzte bete askok. Horregatik, lehenengo fa-

sean 70 etxe emango dituzte soilik. PSE-EEK esan du fase bitan garatzea bultzatu duela, proiektua bertan behera geratu ez zedin. Bigarren faserako baldintza

PSE-EEK esan du fase bitan garatzea bultzatu duela, proiektua bertan behera geratu ez zedin

berriak ipiniko dituzte, eta lehenengo faseko etxeen zozketa hila bete barru egingo dela aurreikusituzte sozialistek.

Bildu eta Aralarren ustez, udalak gainontzeko etxeengatik jasoko lukeen diruagaz 35 etxe egin ahal izango lirateke alokairu sozialean.

EAJren ustez, horrenbeste etxe alokairu sozialean egitea zuhurtzia bakoa da, sortuko litzatekeen gastua neurtzeko arazoengatik.

► M.O.

Aralarren arabera, gaur egun jabetzako etxeak ematea ez da irtenbidea, eta Faustegoienako proiektua ipini du hori argudiatzeko adibide. Joan zen barikuan prentsaurrekoa eman zuten Dani Maeztu eta Iker Urkiza zinegotziek, eta esan zuten krisi sasoi honetan EAJk ez duela ezer egin arlo horretan: "Horrez gainera, datu bat dago Durangon lotsagabekeria erakusten duena: udalak hamar etxebizitza dauzka jabetzan; horietatik hiru soilik daude okupatuta, eta zazpi hutsik". Hori kritikatu ostean, etxe huts horiek alokairu sozialeko zerbitzuan ipintzeko eskatu diote EAJri.

Aralar alderdiko ordezkariak ohartarazi dutenez etxe horiek biltegi legez erabiltzen daitezke. Etxe huts batzuk Intxaurrondon daude, irakasleentzako etxe zaharrean.

Dendak Bai: "Udala komertzioan sinisten hasi dela dirudi"

38.000 euro eta lokal bat eman dizkio udalak Dendak Bai elkarteari, hitzarmena sinatuta

► M.O.

Durangoko Udalak eta Dendak Bai merkatarien elkarteak (+Dendak eta Durango Bai elkartearen batura) hitzarmena lotu dute, eta atzo egin zuten sinadura ekitaldia udaletxean. Aitziber Irigoras alkateak eta Guillermo Oarbeaskoa merkatarien elkarte-ko ordezkariak sinatu zuten hitzarmena. Horrela, udalak 38.000 euroko laguntza eta lo-

kal bat eman dizkio elkarteari. Askatasun etorbidean egongo da hemendik aurrera Dendak Bai-ren egoitza. Oarbeaskoak esker berbak izan zituen atzo: "Udala komertzioan sinisten hasi dela dirudi". Urteetan hori ez dela horrela izan esan zuen merkatarien ordezkariak.

"Urte askoko lana"

Aitziber Irigoras alkateak adierazi zuen urte askoko lana egon dela bi aldeen partetik. "Garrantzitsua da hartu-eman zuzena dagoela, nahiz eta beti ados ez egon". Bere ustez, eskertzekoa da elkarte biek batzeko egindako prozesua.

Irigoras: "Garrantzitsua da hartu-eman zuzena dagoela, nahiz eta beti ados ez egon"



Oarbeaskoa eta Irigoras, atzo, udaletxean.

Udalaren etxe hutsak alokairuan ipintzeko eske

Aralar: "Udalak hamar etxe dauzka; zazpi hutsik"



Maeztu eta Urkiza, ezker-eskuma, prentsaurrekoan.

Irigoraren eta Baliarren aparteko soldata JAEDi

Alkateak eta alkateordeak hartu dute erabakia

Abenduko aparteko ordainsariari muzin egin eta JAED elkarteari emango diote Aitziber Irigoras alkateak eta Mari Jose Baliar alkateordeak.

Durangaldeko EAJk abenduan eman zuen aparteko soldata ez kobratzeko erabakiaren berri. Prentsaurrekoa egin zuten liberatuta dauden eskualdeko kargudunek. Espainiako

governuak funtzionarioei ezarritako murrizketa dela-eta, EAJko liberatuek ez kobratzea erabaki zuten, eurek horretarako aukera eduki arren. Prentsaurreko horretan aurreratu zuten gizarte ekintza atalean inbertituko zutela. Bada, Irigoraren eta Baliarren soldata hori JAED elkarteari ematea erabaki du gobernu taldeak.

> DURANGALDEA

Durangaldeko Elkartasun Karabana Tinduferera doa

Durangaldeko kamioikada bete elikagai zapatuan abiatuko da Tindufeko kanpamentuetara (Aljeria)

> JONE GUENETXEA

Abadiñoako Udalak Astolan duen biltegian bigarren eskuko kamioia zain dago Tinduferako bidaiari ekiteko. Herria auzo elkar-tereko kideen ekimenez, Durangaldean batutako elikagai eta laguntza bertan bildu dute. Herriako Pedro Arebalo *Perikok* eta Angel Longarte *Gelak* aurten ere badihardute atsedetik hartu barik, dena antolatzen. Azken mo-

mentuan kamioiaren sabaian zuloren bat topatu dute eta konpontzeari ekin diote. Gasolindegira joan gura dute depositua bete eta zapatu goizerako dena prest edukitzeko. 24 tona inguru garraiatuko dituzte.

Euskal Herriko Elkartasun Karabanagaz bat eginez, Durangaldeko laguntza zapatuan irten-go da Bilboko udaletxearen aurretik. Anjel Alejo atxondarrak gidatuko du kamioia Alacanteko portura arte. Itsasontzian sartu eta karabanak Oranera bidea hartuko du. Handik desertuan barneratu eta Tinduferra helduko da. Alejo bidaia hau egiten duen bederatzigarren aldia da. "Atxondon zinegotzi nintzela hasi nintzen laguntzen, eta



Anjel Alejo eta Ramón Yébenes, Durangaldeko Elkartasun Karabanaren gidaria eta bere laguntzailea, hurrenez hurren. K.A.

orain ere pozik dihardut". Ez da kamioi gidari profesionala, baina. "Cemosan egiten dut lan, baina soldaduskan gidatzeko baimena atera nuenez, kamioia gidatzeko prest nago". Berarekin batera Ramón Yébenes joango da laguntzaile. Gaua bidean egin eta domeka goizean kamioia Alacanten uzten dutenean, laguntzaileak gidatuko du itzulerarako hartutako autoa.

Kamioia Tindufeko kanpamentuetan geratuko da. Hamai-kagarren aldiz antolatu du kara-

Anjel Alejo atxondarrak gidatuko du kamioia Alacantera arte

bana Herria auzo elkar-tereko. Durangon abiatu zuten egitasmoa eta urteotan Durangaldeko gainerako herrietara zabaldu da. Herri saharauia 35 urtez deserrirratuta bizi da Aljerian, Tindufeko kanpamentuetako desertu

idorrean. Saharauen egoera larria da, nazioartetik geroago eta laguntza gutxiago bidaltzen die-ete. Herria elkar-tereko dioenez, Euskal Herri-teretik bidaltzen den laguntza geroago eta beharrezkoago da.

Umeei harrera

Uda partean, kanpamentuetan bizi diren umeak Durangaldeko familietan oporraldia pasatzeko kanpaina antolatzen du Herriak, bai eta Elorrioko Lajwad elkar-tereko ere.

Euskal Herriko Elkartasun Karabanagaz bat eginez, Durangaldeko karabana zapatuan irten-go da Bilbotik

23.700 kilo elikagai eta 300 kilo arropa, Durangaldetik Tinduferera

Aurten, Amankomunazgoak ere dirulaguntza eman dio Herria elkar-tereari



Herria elkar-tereko bultzatzen duen karabanak 23.700 kilo elikagai eroango ditu aurten Durangaldetik Tinduferra. Eguaztenean prentsaurrekoa eman zuten Herriako kideek Abadiño, diruz lagundu dieten udaletako ordezkariekin batera: Abadiño, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Mallabia eta Zaldibar. Aurten, Amankomunazgoak ere dirulaguntza eman dio Herriari, eta horregatik apur bat gora egin du jasotako diru kopuruak; 38.500 eurora ailegatu dira. Horregaz, kamioia hartu dute, eta sobera geratu den diruagaz elikagaiak erosi dituzte. Horrez gainera, 300 kilo arropa eman dituzte JAEDek eta Eroskik, eta eskola materiala eta konpresak ere eroango dituzte kamioian.

Aurten jasotako elikagai kantitateak ere gora egin du. Herriako kideek balio handia eman diote horri, krisi sasoi delako ikusi-

ta: "Ez genuen uste kantitate hori jasoko genuenik". Herriarrek 6.200 kilo jaki utzi dituzte herrietako komertzio eta ikastetxeetan dohaintzan. Pasta, lekaleak, babak, garbantzuak, arropa, azukrea, kontserbak eta tomateak bidaliko dituzte kamioian.

Elkartasun keinuak

Herriak udalen eta Amankomunazgoaren laguntza eskertu du, baita komertzio eta ikastetxeen ekarpena ere. Gainera, Elorrioko Lajwad elkar-tereko sustatu du janari bilketa, eta Durangon Andereak plataformaren eta HABEREN laguntza ere eduki dute. Elkartasun keinuen artean, Abadiñoako Udaleko beharginena nabarmendu du Herriak: Gabonetako otzarari muzin egin diote, eta horretarako erabili behar zen diruagaz saharauientzako elikagaiak erostea eskatu dute.

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEKO ETA HEDATZEKO ESQUALDEKO JARDUNALDIA

Trebakuntza profesionalaren "beharrak" Euskadin, lehiakortasunerako bidea Durangaldean

MARISTAK IKASTETXEKO EKITALDI-ARETOAN

MARISTAK IKASTETXEA - Abasolo 6 DURANGO - 946810058 (ext: 236 /270) - lanbide@maristak.com

Maristak ikastetxean, 2013ko otsailaren 21ean, 16:15ean

Hizlariak:

- Jorge Aneval (EP Sailburu ordea Jaurritza)
- Adolfo Alustiza (Lanbideko zuzendaria)
- Antón Gorriño (Durangaldeko Lehiakortasun polizia)
- Daniel Inazola (Maristak Ikastetxea)
- Julen Elgeta (Heteleko presidentea)

Zatoz eta informatu zaitetz! Ez galdu aukera hau! Baieztatu etorriko zaren edo ez

hitz

liburudenda

artekalea 14, durango 946 810 776

info@hitzliburudenda.com

> DURANGALDEA**Larrea, Del Hierro eta Aristegiren aurkako epaiketa kritikatu dute****> MARKEL ONAINDIA**

Astelehenean, Zumbeltz Larrea durangarra eta Agustin del Hierro eta Adur Aristegi elorriarrak epaitu zituzten Audientzia Nazionalan. 2002an Gernikan jazotako istilu batzuetan parte hartzea egotzi die fiskalak, eta lau urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du eurentzat. Hori dela-eta, Durangoko Ezker Abertzaleak elkarretaratzea egin zuen astelehenean bertan, *Epai-keta politikorik ez. Irtenbide demokratikoa orain* lelopean. Larrea espetxean dago gaur egun, eta fiskalaren eskaera betetzen bada, kartzelan hogeitau urte pasa beharko dituela kritikatu du Ezker Abertzaleak.

Eskaera betetzen bada, Larreak kartzelan hogeitau urte pasa beharko dituela kritikatu dute

Berriozabal eta Aldasoro

Elorriar sinadura bilketa egingo du asteburu honetan Herrira mugimenduak, Inma Berriozabal presoaren etxeratze eskatze-ko. Gaixorik, larri dago Berriozabal Alamako (Galizia) kartzelan. Gaur plazan ipiniko dute mahaia, bihar auzorik auzo eta domekan plazan eta Urarkan.

Bestalde, Ramon Aldasoro otxandiarrari 197/2006 doktrina -Parot doktrina legez ezaguna- aplikatu diote. 2017an amaitu behar zuen zigorra, eta 2027ra arte luzatu diote. Castellón (Valentzia) dago Aldasoro.

> MAÑARIA**Batukada ikastaroan izena emateko aukera otsailean**

Durangaldeko edonori gonbita egin gura diote

> M.O.

Herrian batukada ikastaroa egin guran dabilta Kultura sailetik. Otsailaren 1ean, informaziorako batzarra egin zuten, eta hamabi lagunek agertu zuten parte hartzearen interesa. Baina, kopuru

Batzar bat egingo dute aurkeztutakoekin, daten eta prezioen inguruko informazioa emateko

Partaideen gehiengoak tabakoa uztea lortu du**> M.O.**

Durangaldeko Amankomunazgoak erretzeari uzteko ikastaro berria antolatu du udaberrirako. Martxoaren 21ean hasiko da, eta zortzi batzar eskainiko dituzte. Aditu batek gidatuko ditu saioak, eta amaitzean, jarraipen saio bat ere egingo dute.

Hain zuzen ere, 2012ko urrian hasi eta 2013ko urtarrean amaitu berri dira azkenengo ikastaroak. 24 lagunek parte hartu dute horietan, eta 17k bete dute amaierako inkesta. Horien artean, 16k tabakoa utzi dutela esan dute, Amankomunazgoaren informazio iturrien arabera.

Etxeko laguntza zerbitzua Servisarrek kudeatuko du**> JONE GUENETXEA**

Servisar Servicios Sociales, S.L. aldi baterako enpresa elkarteari esleitu dio Amankomunazgoak etxeko laguntza zerbitzuaren ardura. Urte birako esleitu dute zerbitzua, eta urtean 1.350.000 euroko aurrekontua dute. Otsailaren 1ean ekin zioten lanari. Zerbitzuaren kostu orokorra 5,4 milioi eurokoa da. "Orain arte zeuden 43 langileak subrogatuak izan dira, eta beraien postuetan jarraitzen dute", Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoaren presidentek azaldu duenez.

hori handitzeko asmoa daukate. Mañariarrez gainera, Durangaldeko edozein biztanleri bertan parte hartzeko gonbita egin diote. Horregatik, otsailean zehar izena emateko aukera egongo da.

Hil amaieran batzar bat egingo dute aurkeztutakoekin, daten eta prezioen inguruko informazioa azaltzeko. Interesdunek udalarekin eman behar dute izena, edo 94 681 89 98 telefonora deitu ahal dute. Bestalde, kultura.manaria@bizkaia.org helbidera mezu elektronikoa bidaltzea ere posible da.

> ELORRIO**Euskara biziberritzeko, herritarren erabileran**

Euskaraz dakitenen kopurua handia izan arren, erabilera oso txikia ei da



Hainbat elorriar, udazkenean, EBPN osatzen laguntzeko prozesuaren batzar batean.

> MARKEL ONAINDIA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu berri du udalak. 2017ra arteko asmo eta ekintzak zehaztu dituzte, eta erabileran sakontzea izango da helburu nagusia. Izan ere, herriko euskaldunen artean inkoherentzia sumatu dute; euskaraz dakitenen kopurua handia izan arren, erabilera oso txikia ei da. Kezka hori agertu zen EBPN osatzeko udazkenean garatutako hausnarketa prozesuan. Hainbat herritarrek parte hartu zuten batzarretan, bai-

ta zenbait elkartetako kideek eta Ana Otadui alkateak (EAJ) eta Maite Peñakoba (Bildu) zinegotziak ere.

Transmisioa lantzeko, etxeko erabileran eragitea izango da EBPNren zereginetako bat.

Gurasoek euskaraz egiten diete umeei, baina helduen artean gaztelania erabiltzen dute

Partaideen arabera, gurasoek euskaraz egiten diete umeei, baina helduen artean gaztelania erabiltzen dute. Horregatik, *Gurasolagun* bultzatuko dute, euskaraz jarduteko aita eta amen sareak sortzeko. Bestalde, *Berbalagun* ekimenean euskaldun zaharren premia igarri dute. Gazteen atalean, partaideen ustez, euskara ez zaie erakargarri egiten. Motibazioan ere ikusten dute hutsunea.

Hausnarketekin jarraitzeko, Euskararen Aholku Batzordea sortuko dute udalean.

> IZURTZA**Alokairuzko bizilekua lortzeko dirulaguntza emango du udalak**

Seme-alabak eduki dituzten gurasoentzako ere diru atal bat bideratu du udalak

> JOSEBA DERTEANO

Azkenengo udalbatzarrean dirulaguntza bi onartu zituzten: herrian etxebizitza alokairuan dutenei eta seme-alaba eduki edo adoptatu dutenei zuzenduta daude. Dirulaguntzak erregulazten dituzten ordenantza horiei alegazioak egiteko epea hasi dute orain. Alegaziorik badago, haiei erantzutean ipiniko dituzte indarrean laguntzak. Herrian alokairuzko etxebizi-

tza dutenei laguntzeko, 1.000 euroko atala aurreikusi du udalak. Gehienez hilabete bakoitzeko 83 euroko laguntza emango zaio eskaera bakoitzari. Eskatzaileak bete beharreko baldintzen artean daude beren jabetzan beste etxebizitzarik ez edukitzea edo familia unitateko bat Izurtzan erroldatuta egotea, besteak beste.

Bigarren dirulaguntzak seme-alaba jaio edo adoptatu berrien hazkuntzarako gastuei egiten die aurre. Hau da, gastua umeei zuzendutako artikulua merkaturatzen diren saltokietan egin beharko dira: arropa dendak, farmaziak, haur artikuluen edo osagarrien dendak, esaterako. Aurten 500 euro bideratu dituzte laguntza horretara.

Herrian alokairuzko etxebizitza dutenei laguntzeko, 1.000 euroko diru atala osatu dute

Etxe kaleratzeak salatzen dituen mozio bi onartu dituzte**> J.D.**

Azken udalbatzarrean etxe kaleratzeen kontrakomozio bi onartu zituen udalbatzarra. Bata, gobernu taldeak aurkeztu zuen (Bildu), eta euren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz onartu zuten. Gai beraren gainean EAJk aurkeztu zuen jeltzaleen aldeko botoekin eta Bilduren abstentzioagaz irten zen aurrera.

Bilduren mozioak, besteak beste, etxe kaleratze denak denbora mugagabe bertan behera uzteko exijitzen du, eta etxebizitza politika propioa egiteko subiranotasun politikoa eskatzen du.

EAJren mozioak hainbat eskaera egiten dizkio Espainiako gobernuari: esaterako, lege modifikazioekin jarrai dezala, etxe kaleratzeek kaltetu dituzten pertsonen babesgabatasun egoerakin amaitzeko.



Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!



HURRENGO UZTARTZE AFARIA
MURILLO VITERI UPATEGIA
 Martxoaren 15ean, 21:30ean

MENUA

BAKAILAO ETA AHUAKATE ENTSALADA
 RAFT TOMATE-ZUKUAREKIN
 ZIGALA ERREA, SU TXIKITAN GISATUTAKO
 POTXEN GAINEAN
 LEGATZ SOLOMOA GARI-BARATXURI
 BERDEEKIN ETA ONDDOEKIN
 AHATE-MAGRET ERREA AZALORE-PUREAREKIN
 ETA ARDO BELTZ URRITUAREKIN
 MARRUBIAK ETA TXOKOLATEA

 MURILLO VITERI 2008ko ERRESERBA
 NATURIUM 2009ko ARDO ONDUA
 MURILLO VITERI ERRIOXAKO ARDO ZURIA
 MURILLO VITERI EXPRESSION

35 € (BEZ barne)

Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendaria eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitute.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeke: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

Harrison hotelaren eskutik bi pertsonentzako afaria eta alojamendua zozketatuko ditugu

Zenbat urte egin ditu Gorakada antzerki taldeak?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
 Aurreko zozketako irabazlea: AMAIA ERRAZTI. Zorionak!

> IURRETA

Kenaik irabazi du aurten enpresa lehiaketa

Naiara Arnelak bultzatutako ile-apaindegiak irabazi du IV. Enpresa Proiektuen Lehiaketa

> AITZIBER BASAURI

Kenai ileapaindegiari eman dio Iurretako Udalak IV. Enpresa Proiektuen Lehiaketa. Proiek-

Kudeaketa plana ere onartu zuten udaleko lau alderdiek, joan zen eguneko udalbatzarrean

tuaren sustatzailea den Naiara Arnelak pozik jaso du saria: diploma eta 9.000 euro. Lehenengo pausoak ematea zaila dela eta horrelako ekimenak garrantzitsuak direla onartu du 26 urteko gazteak. Areatzan jaioa da, baina Iurretan bizi da Arnela. Irailan zabaldu zuen ileapaindegia.

Hiru zatitan banatuta ematen du saria udalak: obra eta jarduerak baimenagaz %20; irekitzeko baimenagaz batera, beste %50,



Udaletxeko udalbatzarren aretoan egin zuten, atzo, sari banaketa.

eta, azken %30a zabaldu eta urtebetera. Lehenengo zati biak eman dizkiote atzoko sari banaketan. Proiektu bi aurkeztu dira.

Iurretako herriguneko enpresen eta merkataritzaren birsorkuntza bultzatu gura du ekimenak. 2009an Durangaldeko He-

rri Komunikabideek lortu zuten saria eta, 2010ean, arkitektura estudio batek. Iaz hutsik geratu zen saria.

Goiuriko auzokideen salaketak aintzat hartu ditu epaitegiak

Lukupeko Troka eta Luku Txiki lurrez betetzeko Jaurlaritzaren baimena balio barik utzi dute

Asturiasko Justizia Auzitegi Gorenak balio gabe utzi du Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko Eusko Jaurlaritzak emandako baimena. Goiuriko kofradiak eta kaltetutako auzokide batek aurkeztutako salaketak aintzat hartu ditu eta, honenbestez, 2007tik aurrera emandako baimenak baliogabetu ditu.

Jaurlaritzaren menpeko URA ur agendiako bi langileren kontra errekusate-intzidente bana aurkeztu zituzten Goiuriko kofradiak eta kaltetutako auzokideak. Hala ere, Jaurlaritzak ez zituen tramitera eroan. Jarduera baimenduaren ebazpena ematean, errekursoak aurkeztu zituzten, kofradiaren eta auzokidearen abokatuak esan lez: "Lehenengo, administrazio-isiltasunagaz errekusateak desestimatu zituen Administrazioaren kontra; ondoren, Asturiasko Justizia Auzitegi Gorenean errekurtsu orokorra aurkeztu genuen. Horrek arrazoa eman digu azaldutako 23 arrazoiatariko batean".

URako langileen aurkako errekusateak ez tramitatzeak "legedia urratzen" duela onartu

URako langileen aurkako errekusateak ez tramitatzeak "legedia urratzen" duela onartu du

du. Errekusatzeetan salatu zuten, "zabortegiaren kokapen egokiaz jarduteko interesatuekin batzartu zirela Administrazioako teknikariak, isurketak egiten ziren bitartean".

Auzia Asturiasko Auzitegira heldu da, Zaldairi eragiten dion

"Determinatzailea" izan daiteke 2010eko jarduera eta obra lizentzia dekretua baliogabetzeko

erabaki administratiboa delako, hau da, Gaztela-Leonen isurtzen den Ibaizabalen ibaiadarrari. Ondorioz, Gestioa URaren esku egon arren, azken erabakia Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarena da (Oviedon du egoitza). Sententzia irmoa Konfederazioari bidali dute, dagokion organoari jakinarazi eta bete dadin.

Udal baimena

Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak lurrez betetzeko udalak 2010ean emandako jarduera eta obra lizentzia dekretua baliogabetzeko "determinatzailea" izan daiteke sententzia abokatuaren ustez, "zati garrantzitsu batean konfederazio hidrografikoaren azalpenak dituelako oinarri". Erabakiaren kontra prozedura administratiboak daude zabalik Bilboko 2. eta 5. epaitegietan.

> MALLABIA

II. Argazki Digitalen Lehiaketa, korrikaren alde

'Beti zeozer eitten Mallabixen' da edizio honetarako aukeratu duten gaia

> J.G.

Mallabiko Udalak II. Argazki Lehiaketa jarri du martxan. Ekimena Korrikaren aldeko kanpainaren barruan sartu

dute antolatzaileek. Bigarren edizio honetarako aukeratu duten gaia *Beti zeozer eitten Mallabixen* da. 16 urtetik gorako argazkilariek parte hartu ahal

izango dute, eta lanak zuri beltzean zein koloretan aurkeztu ahal izango dituzte. Apirilaren 19a da lanak aurkezteko azken eguna, kultur etxean.

Maiatzaren 19an, azoka egunean, aukeratutako argazkiekin erakusketa antolatuko dute frontoian. Eguerdian sariak banatuko dituzte. Irabazleak 250 euro jasoko ditu, bigarrenak 150 euro, eta hirugarrenak 50 euro.

> ABADIÑO

Etixerako 500 ur murrizgailu banatuko ditu udalak

> JONE GUENETXEA

Abadiñoko Udalak etxerako 500 ur murrizgailu banatuko ditu, ur kontsumoa gutxitu eta ingurumena zaintzen laguntzeko. Kare pilaketak murrizten dituzten teknopolimeroekin egindako 500 murrizgailu horiek gailu konbentzionalek baino %50 azalera iragazle gehiago dute. Tresna horrekin, etxe bakoitzean urtean 4.700 litro gutxiago kontsumituko lirakeela azaldu du Jose Luis Navarro alkateak.

Murrizgailuak datorren astelehenean banatzen hasiko dira. Udaletxean zein Traña-Matienako udal bulegoan jasotzeko aukera izango dute interesa duten herritarrek. Eskatzaile bakoitzari bat emango diotela adierazi dute. Udalak 2010ean horrelako beste 1.000 gailu banatu zituen.

> ZALDIBAR

160 ekarpen jaso dituzte aurtengo aurrekonturako

Inkesta bidez eman dute 160 herritarrek iritzia

> I.E.

Urte amaieran udalak etxeetara banatu zuen inkesta bete eta entregatuta, 2013ko udal aurrekontuaren inguruan duten iritzia adierazi dute 160 zaldibartarrek. Udalak lanpoltsa publikoak sortzea, edota etxe hutsen azterketa egitea dira, besteak

beste, herritar gehienek markatu dituzten aukerak. Ekarpen horiek kontuan hartuta egingo du gobernu taldeak aurrekontuen proposamena.

Alkateak azaldu duenez, aurrekontu proposamena eta ekarpenok herri batzarrean azalduko du gobernu taldeak.

> GARAI

Lapurreten aurreko prebentzioa, nagusientzako

> MARKEL ONAINDIA

Durangaldeko Amankomunazgoaren eskutik berbaldia egongo da datorren eguaztean, Garain. Adinekoen sailak eta herriko nagusien elkarteak lankidetzan eratu-

koa da, eta lapurreten aurreko prebentzioa izango da gaia. Erztaintzak talde berezi bat dauka horrelako mintegietarako, eta eurek emango dute informazioa.

Adinekoen saileko ordezkariak esan dute nagusi batzuek kezka agertu dutela kalean kartera eta antzekoak ostu dizkietelako. Horren harira eratu dute berbaldia, eta Durangaldeko beste zenbait herritan ere egingo dute.

> DURANGALDEA ASTEON**Pentsio erreforma dela-eta, aldaketak dokumentazioan**

LABen esanetan, pentsioen erreforma dela-eta, hainbat dokumentazio entregatu behar da Gizarte Segurantzaren martxoaren 1a baino lehen. Bestela, pentsioen lege zaharra aplikatuko zaie langile eta enpresei. LABera deitu daiteke informazio gehiagorako.

Elorrioko Udalaren zorra 2,5etik 1,3 milioi eurora jaitsi da

Joseba Mujika alkateordeak azaldu duenez, 2012. urtearen hasieran 2,5 milioi euroko zorra zeukaten, eta urtebetera 1,3 milioira jaitea lortu dute. Era horretan, udalaren zorpetze maila %16an ei dago: "Horrek oso garbi erakusten du udalaren kudeaketa ona", azaldu du Mujika alkateordeak.

**Nati Berrocalek irabazi du 'Salerosketa be euskaraz' ekimeneko bigarren iPada**

Durangoko merkataritzan erosketak euskaraz egitera animatzen duen ITGren egitasmoak, bigarren iPada banatu du. Nati Berrocal izan da irabazlea eta Durangoko e-SOFT informatika dendak banatu du 87.107 zenbaki saritua. Oraingo honetan, ordezeko zenbakia izan duenari egokitu zaio saria, zenbaki titularra ez delako agertu. Irailera bitartean beste lau iPad banatuko dituzte: hurrengoa martxoaren 1ean izango da.

> BERRIZ**Legaño auzoa konpontzea, 2013ko egitasmoen artean**

5.097.000 euroko aurrekontua onartu du Berrizko Udalak, iazkoa baino %6 baxuagoa



Aurrekontuetan parte-hartzea zehazteko prozedura lantzekotan dira udal taldeak.

> AMAIA UGALDE

Auten inbertsionarako 192.000 euro edukiko ditu Berrizko Udalak. Tartean, Legaño auzoa konpontzeko 60.000 euro bideratuko dituzte. Iaz baino %6 txikiagoa izango da 2013ko aurrekontua, 5.097.000 eurokoa.

Udal ordezkarien berbetan, Espainiako gobernuaren aurrekontuetarako dekretuak mugatu egin ditu erabakiak. Soberakinak ezingo direnez inbertsionetara bideratu, diru atal horretan diru gehiago jarri dute, oraindik egitasmo batzuk definituta izan ez arren.

2012ko jarduna kontuan hartuta zehaztu dute, adibidez, gizarte laguntzen arloa; 72.000ko diru ataletik 44.000 erabili ziren, eta aurten, 64.000 euro bideratuko dituzte arlo horretara.

Bestetik, zinegotzien dietak %33,49 baxatzea adostu dute.

Aurrekontuen bozkaketan, EAJk alde bozkatu du, eta Bildu eta PSE-EE abstenitu egin dira. Udala lantzekotan den prozedura parte-hartzaileago baten premia nabarmendu du Bilduk.

teknikari lanetan egon den pertsonari kontratua amaitu zaio, eta zuzeneko kontratazioz egon da behar. Espainiako gobernuak aurrekontuei buruzko dekretuan arautu duenez, udalek ezingo dute orain zuzeneko kontratazioz egin.

Behargintzan sartzea aho batez onartu zuten eguazteneko osoko bilkuran. Lehenago, euskara arloa eta kontsumitzaileen bulegoko zerbitzua ere utzi du udalak Amankomunazgoaren esku.

da. Orland Isoird alkateak esan duenez, "ekonomia eta langabezia datuak ikusita, eskualde mailan lan egiteko premia dago".

Langileen kontratazioari buruzko auzia ere badago tartean. Orain arte, enplegua sustatzeko

Herriko enplegu arloa Behargintzak kudeatuko du

Amankomunazgoaren bidez emango dute orain arte udalak eman duen zerbitzua

> A.U.

Enplegua sustatzeko Durangaldeko ekintza planean parte hartzen hasiko da Berrizko Udala, Behargintzaren bidez. Horrela, udalarena izan den eskumena Amankomunazgora pasatuko

Urtarrilean Bilduren bidez aurkeztu zen mozioa, eta orduan, testua lantzeko denborarik ez izana eta Berriz 1936 Gogoratzen elkarteagaz batzartu ez izana leporatu zion EAJk Bilduri. Talde politiko guztiak herriko elkarteagaz batzartzekotan geratu ziren, eta hainbat arrazoi tartean, gobernu taldeak ez du horrelako batzarririk deitu.

EAJk moldaketa batzuk egingandako testua onartu dute, azkenean, Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak babestuta.

Eztabaiden ostein, onartuta frankismoaren kontrako mozioa**> A.U.**

Argentinan hastear den frankismoaren krimenen kontrako epaiketa babestu du Berrizko Udalak, talde politikoen eztabaiden ostein. Mozioagaz egon den prozedura izan da eztabaidagai nagusia.

> ATXONDO**Beste bost auzo batzar egingo dituzte martxoan**

Aurrekontuen proposamena aurkeztu eta auzoko premiak zelan jaso dituzten azalduko dute

Atxondoko gobernu taldeak auzo batzarren bigarren txanda egingo du martxoan. Martxoaren 16an Axpen batuko dira, sasoi bateko udaletzeko eraikinean. Bigarren auzo batzarra Arrazolakoa izango da: ludotekan egingo dute martxoaren 24an. Auzo batzarren lehenengo txanda egin zuten moduan, hiru batzar egingo dituzte Apatan. Printzipioz, martxoaren 9tik 16rako astegune-

tan daude aurreikusita Apatako batzarrak.

Batzar horietan herritarren premiak aurrekontuan zer modutara eta zer lehentasunekin jasotzen saiatu diren azalduko dute. Horrez gainera, lehen batzar txandatik hona auzoetan egindako lan batzuen berri emango dute.

Lehenengo bost auzo batzarretan 120 pertsona inguru batu ziren.

> OTXANDIO**Ruben Garate gogoratzeko mendi martxa egingo dute**

Preso bat bisitatzeraz zihoala auto istripuz hil zen orain 13 urte. Motxotegira igoko dira bihar

> J.D.

Otxandioko Herrira mugimenduak Ruben Garate gogoratzeko mendi martxa antolatu du biharko. Garate orain 13 urte hil zen, Madrilera preso bat bisitatzeraz zihoala auto istripu bat izan zuenean.

Goizeko 09:30ean ipini dute hitzordua. Plazatik abiatu eta Motxotegira igoko dira mendi martxako parte-hartzaileak. Tontor horretan Garate gogoratzen duen monolito bat dago. Omenaldi ekitaldia egin ondo-

ren, mokadu bat jan eta herrira jaitsiko dira, eta trikipoteoa egingo dute herriko tabernetan. Ondoren, 15:00etan, bazkaritara batuko dira Kementsu elkarteak. Gaur ere erosi daitezke bazkaritarako txartelak Kementsu elkarteak.

Otxandioko Herrirak gogoratu duenez, presoan dispersioak 40 auto istripu eta 13 zauritu eragin zituen 2012. urtean zehar. Dispersioa hasi zenetik hona, 17 lagun hil direla ere salatu dute.

OSTEOPATIA IKASTAROA

elorriion

Osteopatia ikasi nahi?

ORAIN DUZU MOMENTUA!

Astean zehar edo asteburuetan egiteko aukera



INFORMAZIO GEHIAGORAKO

670 582 764

▶ Berbaz

JOANNE GARATE ETA LUISA OLEAGA | 18 urteko durangarrak | Sahararako liburuak batzen hasi dira



“Herri saharauari laguntzeko, hezkuntza oinarri argia dela ikusten dugu”

Saharako errefuxiatuen kanpamentuak ezagutu ostean, bertara erroteko material didaktiko eta liburu bilketa egitea pentsatu dute Joanne Garatek eta Luisa Oleagak. Orain arte, Durangoko ikastetxeetara jo dutela azaldu dute, eta oso erantzun ona jaso dutela

>AMAIA UGALDE

Herria elkartearen bidez ume saharauiak hartzen dituzte etxean Joannek eta Luisak. Koadrilako lagunak dira biak, eta kanpamentuak ezagutzeko aukera eduki dute. Hezkuntzaren arloak daukan garrantziaz jabetuta, hemendik materiala bidaltzeko ekimena abiatu dute.

Noiztik daukazue harremana herrialde saharaiuagaz?

Luisa Oleaga: Orain dela zortzi bat urte hasi ginen gure etxean ume saharauiak hartzen, Herriagaz. Sahara maratoian ere parte hartu nuen nik duela urte bi, eta orduantxe joan nintzen bertara.

Joanne Garate: Gurera mutiko bat etortzen da, eta aurtengo udan etorriko da laugarrenez. Hamazortzi urte egin nituenean esan nion amari Saharara joan gura nuela, haren etxera. Lehen-gusua eta hirurok joan gara aurtan hara. Oso gogorra egin zitzaidan umeak horrela ikustea; ez dute egiteko ezer, ez dute gosalzten... Bueltatutakoan, Luisagaz berba egiten hasi nintzen,

“

Ikastetxeetara jo dugu, eta oso erantzun ona eman digute. Herriari laguntzeko hezkuntza oinarri argi bat da”

“

Zarata handia egin arren ez diete entzungo; munduarentzat ez dira existitzen”

eta liburuak batzeko kanpaina egitea erabaki genuen.

Zelan doa liburuen bilketa?

L. O.: Pentsatzen genuena baino hobeto. Ikastetxeetara jo dugu, eta oso erantzun ona eman digute. Herriari laguntzeko, hezkuntza oinarri argi bat dela ikusten dugu.

Zelakoa da hango hezkuntzaren egoera?

J. G.: Gurera datorren mutikoaren ikastetxea bakarrik ikusi dut nik. Berez, mailaka daude gelak, baina hainbat edadetako jendea zegoela iruditu zitzaidan. Ikastetxeak hemengo antzekoak dira, baina oso material gutxi daukate. Liburu gutxi, asko koaderno barik zeuden... Etxera etortzen ziren etxerako lanekin, eta ikusten nuen hama bi urteagaz, eragiketa nahiko xumeak bidaltzen zizkietela. Arabierazko eta gaztelaniarazko eskolak izaten dituzte, eta oso material gutxi daukate. Ikastetxeetan antolakuntza falta da: han egon garenean, umeak etxean egon dira ia denbora guztian. Esan zigtuen egun batzuk jai zituztela

gu han ginelako, baina gero ere etxean zeuden. Antza, irakaslea falta zen.

Liburuak aisialdirako tresna ere badira.

L. O.: Nik pentsatzen nuen, denbora libreka daukatenez, antzerkia eta horrelako kontuak egingo zituztela. Baina ez; gure umea egun guztian etxean egoten zen, tea hartzen. Jolastu bai, baina etxe ondoan. Pertsona nagusientzako ere liburuak ondo egon daitezkeela ikusten dugu.

J. G.: Gure etxera margotzeko liburuak eroan genituen, eta ikusten genuen amek ere margoztu gura zutela, umei kentzen-eta ibili ziren.

Bueltatzeko gogoagaz zaude-te?

L. O.: Ea hala den, behin aurretuta eta karrera amaitzen dugunean... Orain egoera ez dago oso ondo. Aurten ez dute Sahara Maratoia egin, arrisku larregi da goela esan dute.

J. G.: Ni orain bertan joango nintzateke. Hezkuntzan lagundu ahal dugula uste dut, nahiz eta gazteak izan. Hezkuntza da

oinarria egoera horretatik irteko. Euren desertu horretatik ezin direnez irten, zarata handia egin arren, ez diete entzungo; munduarentzako ez dira existitzen. Pasaporteak lortzeko Aljeriara joan behar dute, pilo bat ordainduta... Ez da interesatzen. Egoera horrelakoa izanda, bertan hezkuntza bat eman behar dela ikusten dugu, gero eurek etorkizun hobe bat eduki ahal izateko. Oso goiz uzten dituzte ikasketak. Neskek batez ere, ezkondu eta umeak edukitzeko. Mutilek ikasi dezakete, eta polizia izan han, baina hori ere gaitza da.

Noiz bidaliko dituzue liburuak?

L.O.: Karabanan joango dira liburuak apurka-apurka. Ahal dugunean gu joatea eta materiala eskura ematea ere gustatuko litzaiguke. Gure etxeetara etortzen diren umeen eskolara eroan gurako genituzke.

Herria elkarteko tabernan batzen dituzte liburuak; informazio gehiagorako: lagundusahara@gmail.com

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Denbora ziurtatzen ari da

Egiazta ezazu!



%100 - raino finantzaketa

- Baldintzarik onenetan
- Idatziz bermatua

Sabadell Guipuzcoano



2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ

3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ



www.sukia.com
www.solvía.es

 **sukia**
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

Niko Morenok gure ustetan, modu irregularrean ordainduta-ko kopuruen inguruan

Ez daukagu zalantzarik ordainketa irregular baten arduradun nagusia zarenik, eta hona hemen gure argudioak:

1. Udal Batza Osoak, Bildu barne, aho batez onartu du erreklamazio bideak zabaltea, zure kabuz unilateralki 2011ko ekainaren 9an hartutako erabakiaren ondoren.

2. Erabaki hori hartu ondoren, ondorioztatu ahal da, Bildu talde politikoa ere ez duela zure jarrera babesten eta ondorioz prest dagoela Zuzenbide Administratiboak ematen dituen bide guztiak erabiltzeko, modu irregular batean ordaindutako 100.900 euro horiek berreskuratu ahal izateko.

3. Udaletxeko Zerbitzu Juridikoek egin duten txosten juridikoaren arabera, ez dago inongo zalantzarik zuk hartutako erabaki partidista horrek Emtesport enpresaren alde "bidezkoa ez den aberaste" bat eragin zenuela, eta ondorioz Elorrioko Udala zein Elorriotar guztien interesak kaltetu.

4. Emtesport enpresak erreklamazio bat aurkeztu izan balu, eta erreklamazio hori bidezkoa zela ikusi izan balitz, erabaki hori txosten juridiko batean oinarrituta egon beharko litzateke, eta horrela balitz, kontratu aldaketa bat planteatu ondoren, eta Udal Batzak berretsi ondoren, beste kitapen bat onartua izango zen... Zergaitik ez ziren eman pauso horiek, ustezko erreklamazio hori bidezkoa zela ikusi balitz?

5. Ez dugu ezagutzen udaletxean zuk aipatzen duzun erreklamazio hori, ez dugu horren berririk, ezta ere zuk berresten duzun jarreraren aldeko txosten juridikorik ere, zertan eta non oinarritzen da ba zuk aipatzen duzun babes hori?

6. Zuk egin dituzun adierazpenen ondorioz garbi ikusten da zure intentzio bakarra, udaletxeko langileak zipriztinduz eta inplikatu nahian, jarrera desegoki horren inguruan zure arduragabeke-riak estaltzea dela.

7. Hartu behar zenuen erabaki honen berri ez zenuen eman; ez zerbitzu juridikoei ezta idazkaritzari ere, beraz, gezur hutsa da pasa den asteko aldizkarian hain garbi adierazten zenuen baieztapena.

8. 2011ko urtea irizpide berdinarekin kitatzeak ez du esan nahi ondo egin zenik. Azaldu den bezala, 2011ko kitapena egin aurretik, inork ez zigun azaldu zer irizpide erabiltzen ari ziren kitapenak egiteko eta kontu-hartzaitzako txostenak aldekoak izan ziren. Ez da politikari baten ardura udaletxeko kontuak fiskalizatzea; politikari baten ardura diru publikoen kudeaketa zuzena egitea da, eta horretan ari gara, guri dagozkigun ardurak hartuz.

9. Emtesport eta udalaren artean kontratu batean sinatutako klausula eta konpromisoak betearazi beharrean, zuk zeuk (inor informatu gabe) erabaki zenuen Emtesport enpresari diru gehiago ordaintzea.

10. Ez da EAJ-PNVren asmoa Ezker Abertzaleari ezer leporatzea. Ezker Abertzaleak Niko Morenok hartutako erabaki horrekin ados dagoen edo ez adierazi beharko du. Udal gobernuaren ardura eta asmoa da Emtesport enpresari ordaindu zaion gehiegizko 100.900 euro horiek berreskuratzea, kudeaketa zuzena eginez.

Elorrioko EAJ

Enpresa txiki eta ertainak erreformaren kontra borrokatzen!

Langileendako onurak lortzea ez da sekula erraza izan eta azken lan erreformak areagotu egin ditu zailtasunak, oztopo berriak ezarriz: hitzarmenen lehen-tasun maila, beraien "kaduzidada", kaleratzeen erraztea, arbitrajea edota lanaldiari ezarri zaion ehuneko hamarreko malgutasuna dira honen adibide.

Enpresa handietan hitzarmenak negoziatzeko abantaila aurreuposatzen da, historikoki hauetan sakondu delako negoziazioan, sindikatuok presentzia handi eta pisutsuagoa izan dugulako...Txiki eta ertainetan, ordea, eta orokorrean hitz eginda, probintzialaren "babespean" arautu dira, honen hobetzea soilik soldatetara mugatuz.

Tamalez, legeak hitzarmen probintzialei gutxiene-kotasuna kendu die, eta enpresako hitzarmenen esku utzi du langileok erreformari mugak ezartzeko bide bakarra. Ezer aldatu ez balitz bezala sektorekoan apustu egiten jarraitzea jendea engainatzea da.

Mugak gaintzeko, mugen ezagutza nahitaez-koa bihurtzen da haietatik haratago joan nahi badugu, eta hortik aurrera sindikalgintza lan serioa dago ETEetan egiteko. Langileok enpresa guztietan indarrak batu eta bakoitzean lortu nahi dugun araudia borrokatu behar dugu, eta honetan parekatuta geratzen dira enpresa handi, ertain eta txikiak.

Zailtasunak ez dira ezinezkotasunak eta eskualde honetan dauden Troger, SA eta Soldaberriz, SL py-meak, honen adibide argiak dira, bertako langileak enpresa hitzarmenen bitartez erreforma euren enpresetan ez sartzea lortu ez ezik, euren baldintzak hobetzea lortu dutelako, besteak beste, euren erosahalmena bermatzeko KPIren gaineko igoerak adosten.

Enpresa txiki eta ertainetan negoziazio kolektiboak posible dala erakutsi digute, mugak gaintzeko ahalmena langileak ondo informatuak, kideak eta organizatutako egotean datzala egiaztatuz.

Ekin diezaiogun ba ahalegin honi, aukera bada- go eta!

Ernesto Esparza eta Jon Etxebarria, ELA Sindikatuko Metal eta ETE etako arduradunak Gernika-Durango eskualdean

Zure iritzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - astekaria@anboto.org
 • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
 • eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau

Etxebizitza duina izateko eskubidea beti izan da gauzatzeko zaila. Gure herriko ekonomia sano egoanean arazo ugari aurkitzen genduan salneurri edo alokairu egokian etxebizitza bat erosi edo alokatzeko. Ez hori bakarrik. Udalek traba eta oztopo haundiak topatzen ebezan babes publikodun etxebizitzak eraikitzeko. Prozedurari behar beste heldu ahal izateko konponbide zein ahalegin imajinatiboak topatzen ibiltzen ginen. Orain prozedura errazagoa da, baina gorabeherak bestelakoak dira. Gogorrak herri-tarrentzat. Egun, gure herrian, babes ofizialeko etxebizitzak egin eta jabe barrik geratzeko arriskuan dagoz, krediturik ez jakolako emoten herritarra-ri. Barriro be urtenbide errealista eta baliagarriak topatzeko erronka daukagu. Eta egiten ari gara. Aurreko as- tean Durango Plenoak onartu eban Faustegoienako etxebizitza babestua egiteko erabaki eragingarria: 160 etxe- bizitzak hiru epetan egitea eta, dago- neko, martxan dagoz lehenengo 70ak (euretariko 12 gazte- alokairuari zuzen- duta). Eragozpenei aurre egin behar deutsegu aukera barriak topatuz.

Alabaina, erabaki honek ez eban ja- so talde politikoa guztien babesa, ez. Be- tikoek ezetza emon eutsen, errazagoa baita, konponbideak aurkitzea baino, kexaka egotea norberaren jarrera al- daezin eta zentzugabe. Ohituta da- goz inori dan-dana kritikatzeko ezertxo be egin barik. Halere, zorionez, ego- ra aldatuz doa. Betiko horiek gaur go- berneratzen dabezan administrazioetan be arazoak sortzen dira, hau da, Espai- niako bandera jartzeko agindua jaso eta betetzen da, aurrekontuak onar- tzeke negoziatioak egin behar dira, esleipen tramitazio administratiboan arazo ugari sortu eta adjudikazio ba- rik geratzen dira, diru-laguntzak gal- du egiten dira... Oposizioan egonda axolagabekiaz esandakoa eta gaine- rako alderdiei leporatutakoa orain eu- rei gertatzen ari jakee. Eta herriak al- derdi guztiak maila berean aztertuko ditu, inolako salbuespenik barik. Ez dago hemen "sortzez garbirik". Argi dago, "urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau".

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko otsailaren 15a
11. urtea - 488 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
 Joseba Derteano
Administrazio burua:
 Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
 Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
 Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
 Itsaso Esteban, Markel Onaindia
 eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
 Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
 Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> ANTZERKIA

‘Munduari itzulua’ eta Gorakadaren historiari errepassoa San Agustinen

Gorakada antzerki taldea sortu zela 25 urte dira. Taldearen historiari buruzko erakusketa antolatu dute



Durangoko San Agustín kulturean ipini duten erakusketa dago Gorakada antzerki taldearen 25 urteko lanaren eta aberastasun kreatiboaren emaitza: ikuskizunetarako sortutako txotxongiloak, kartelak, argazkiak... Denbora asko daramate taldekideek “memoria egiten” eta Traña-Matienako lokalean gordetako materialak batzen, eta otsailaren 24ra arte izango dira San Agustingo erakusketa.

‘Munduari itzulua’

Kulturgune horretan eskainiko du otsailaren 17an Gorakadak familia osoari zuzenduriko azken antzezlan: *Munduari itzulua*. Mikel Gaztañaga pianistak, eta Aritza Rodríguez eta Jose Cruz Gurrutxaga aktoreek zuzeneko musika eskaintzen dute Euskadiko zein Espainiako antzokien sareak gomendatzen duen Willy Fogen bidaiei buruzko antzezlanean.

«Behin-behineko proiektua zirudien Gorakadak, jaio zenean»

Alex Diaz abadiñarra da Gorakada antzerki taldearen zuzendaria

Zer alde dago duela mende laurdeneko Gorakadaren eta gaur egungoaren artean?

Handia: Euskal Herrian eta Espainian egonkortuta dagoen konpainia gara, gaur egun: programazioan murrizketa handiak egiten ari diren arren, zirkuituetan sartuta gaude. Zorionez, Euskadin lan asko egiten dugu: orokorrean, lehen egiten zenaren %60 egiten dugu hemen, eta %30 Espainian.

Zein da Gorakada antzerki taldearen lantaldearen 2013ko argazkia?

Urte asko daraman sorkuntza talde finkoa daukagu: Javi Tiradok, esaterako, 21 urte daramatza Gorakadan, eta azken urteetan taldeko zutabe dira Jokin Oregi, Fran Lasuen, Aritza Rodríguez, Jose Cruz Gurrutxaga, Maida Zabala, Javi Ulla, eta Jon Chavez ere. Horixe izan da urteotako gure helburua: Gorakadaren inguruko lantalde finkoa osatzea.

Zelakoa izan zen hasiera?

Behin-behineko zerbait bezala jaio zen proiektua: Durangon bageneukan Geroa antzerki taldea, eta Julio Perugorriak koordinatzen zituen taldeak sortu ziren Abadiñon eta Zaldibarren

ere. Hainbat lagun elkartu ginen hor: Amaia Peña, Quique Gago, Isabel Ruiz de Erentxun, Ricardo Villalba... Proba egin gura genuen, eta egun batean, Juliok umeentzako ikuskizun bat sortzea proposatu zigun. Horrela sortu genuen *Ttartalota eta artzaina*. Juliok oso zimendu irmoak ipini zituen Gorakadan, oso garrantzitsua izan da eta oraindino ere bada gure taldearentzat: egun, gure banatzailea da. Jende asko hasi zen taldera gerturazten: 1997an sartu zen, esaterako, orduetik gurekin diharduen Javi Tirado.

“*Ikuskizunekin esperimentatzea da gura duguna: ez gara torlojuak egiteko fabrika bat*”

Azken urteetan kolaboratzaile berriak ere gehitu zaizkizue ikuskizun bakoitzera, ezta?

Bai, esaterako *Munduari itzulua* zuzentzen Portugalgo Cha-

pito taldeko Ze Garciak jardundu. Ikuskizun bakoitzaren arabera moldatzen dugu lantaldea. Emaitzan igartzen da hori: oso apustu indartsua egin dugu. Publiko familiarrarentzako gure ikuskizunetara hainbat arlotako profesionalak gehitzeak oso antzezlan profesionalak osatzen lagundu digu, bai antzezlanen edukiari dagokionez, bai eta ikuskizunaren beste arlo batzuei dagokienez ere... 90 lagunek baino gehiagok egin dute 25 urte hauetan Gorakadarekin lan. Urte hauetan guztietan taldeari lotuta jarraitu duen jendeak ematen dio taldeari sendotasuna.

Prozesu baten, lan egiteko eraren eboluzioaren emaitza da aipaturikoa, ezta?

Bai, noski. Eta hasi ginenean bageneukan nora begiratu ere: Geroa taldearengandik ikasi genuen zelan egin daitekeen antzerki profesionala. Bestalde, beti gura izan dugu kolaborazioen bitartez gure lana aberastea. Oso talde gutxi daude horrela funtzionatzen dutenak, eta harro gaude. Zuzendari portugaldar batekin egindako lanak “Gorakada ikutua” edukitzea oso pozgarria da. Izan ere, oso garrantzitsua da guretzat Gorakadaren identitatea ez galtzea.



‘Munduari itzulua’ sortzeko prozesua berezia izan da?

Berezia da, Ze zuzendariak antzezlanari eman dionagatik, baina lehenago ere irten izan gara kanpora: *Cyrano* lanarekin ere Lisboaiko zuzendari batekin jardun genuen. Lisboaara joan ginen, bertan zegoelako behar genuen zuzendaria: umorea eta proposamen fisiko eta keinukariagoa bilatzen genuen: antzerkia egiteko beste era bat. Ikuski-

zun bakoitzarekin esperimentatzea da gura duguna: ez gara-eta torlojuak egiteko fabrika bat.

Etorkizunera begira, zer erronka daukazue buruan?

Proiektu berri bati ekiteko gogo daukagu. Badauzkagu ideia batzuk buruan, eta ekiteko gogotsu gaude. Bestetik, maiatzean bira hasiko dugu Galizian, *Printzea eta ahatea* antzezlanaren gallegozko bertsioa eskaintzeko.

> MUSIKA



Birako azken kontzertuetako bat Elorrion joko du Lisabok

Bihar, 22:30ean hasita joko du Irungo Lisabo seikoteak Elorrioko Arriolan

Inoren Ero Ni, Hotel eta Anari taldeekin 2006an sortu zuten Bidehuts autogestio eta sormen librerako kolektiboagaz 2011ko udazkenean kaleratu zuen *Animalia lotsatuen putzua* diskoa Lisabok. Disko horren aurkezpen birako azken kontzertuak eskaintzen dihardu Irungo seikoteak, eta Elorrion eskainiko dute azken kontzertuetako bat,

bihar, Arriola antzokian. Joan den asteburuan Castelló eta Barzelonan jo du Lisabok, eta oso harrera beroa egin die bertako entzulegoak.

Elorrioko otsailaren 16ko emanaldiaren ostean, martxoan Madrilen eta Donostian, eta apirilean Zarautzen eta Bilbon eskainiko dituzte emanaldiak. Apirilaren 13an, Bilboko Kafe

Antzokiko kontzertuagaz emango dute *Animalia lotsatuen putzua* diskoaren bira amaitutzat.

Ibilbide oparoa

Hamabost urte daramatza talde Lisabok rock, post-hardcore eta noise doinuak lantzen eta zaleei disko zein kontzertuetan eskaintzen. Ibilbide horretan, 1999an taldearen izenagaz kaleratu zuten lehenengo diskoaren ostean, beste bost atera dituzte.

Karlos Osinaga, Javi Mantrola, Iban Zabalegi, Eneko Aranzasti, Xabi Zabala eta Joseba Ponce, Lisabo, zuzenean entzuteko aukera proposa da Elorrioko antzokiko biharkoa.

> LEHIAKETA

Abian da 'Zugan ni' jairako kartel lehiaketa

Martxoaren 15era arte bidali daitezke lanak, Markeliñe antzerki taldearen helbide bietara

> I.E.

Lehiaketa egingo dute *Zugan Ni* antzerki jaialdiaren aurtengo edizioa iragarriko duen kartela hautatzeko. Horixe jakinazi du jaialdia antolatzen duen Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak. Martxoaren 15a baino lehen, zuganni@markeline.com edo markeline@markeline.com helbideetara bidali behar dituzte parte-hartzaileek euren lanak,

eta martxoaren 20an emango dute jakitera jasotako guztietatik zein aukeratu duen epaimahaiak jaialdiaren kartela izateko.

Hamabi eta hamazortzi urte artekoek parte har dezakete lehiaketa honetan, eta irabazleak *tablet* bat jasoko du.

Seigarrenez antolatuko dute *Zugan Ni* aurtengoa, hasierako helburu beragaz: nerabeak antzerki mundura hurreratzea.

Bidehutsen zigiluagaz 2011ko udazkenean kaleratu zuten diskoaren aurkezpen bira amaituko dute apirilean

> ZINEMA

'Zinegoak' jaialdiko filmak San Agustinen

Bilboko zine jaialdian aurkezturiko bost film emango dituzte barikuan, 20:30ean, Durangon

> I.E.

Domekara arte Bilbon egin duten *Zinegoak* zinema jaialdira (nazioarteko gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoen jaialdira) aurkezturiko lanen lagin bat ekarriko dute, otsailaren 22an, Durangoko San Agustin kulturgunera.

AEB, Belgika eta Espainiako pelikulak izango dira ikusgai: hiru minutuko iraupene-

koa laburrena, eta ordu erdikoa luzeena. Gainera, Euskal Herrian ekoizturiko *Folklorikas lesbianas* film laburra ere emango dute, Durangoko San Agustinen. Bost film eskainiko dituzte, guztira: *Quiet*, *Maskarak*, *Atomes*, *Love Wars*, eta *Despierta* izenekoak.

Aurtengoa, hamargarren urterrena ospatu dute Bilboko zinema jaialdian.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA

Bertsolaria



Debekatuta dago

Azken asteotan kopeta zimurtuek bete dituzte komunikabideak: bateko Rajoy, besteko Urdangarin, eta azkenean, baita Aita Santua bera ere! Madriler eta Vatikanora begira itsutu beharrean, begiratu dezagun itsasoaz beste aldekoa erakusten diguten leihotara; Txilera adibidez. Bertakoa zen Pablo Neruda; herrialdeak bizitako garairik gogorrenetan ere, berbak josiz mezu kritikoak eta indartsuak helarazten jarraitu zuen poeta. Gonzalez Videla presidentearen agindupean, errepresioak markatutako sasoi ilunak bizi zituen Txilek, eta beste ekin-tzaile askorekin batera, Neruda ere erbesteratua izan zen 1949tik 1953ra. Txokorik txoko ibili ondoren, sorterrira itzuli zen, eta gerora ezagun egin diren hainbat lan idatzi zituen.

Hain ibilbide oparoaren ondoren, 1973ko irailean zendu zen; Augusto Pinochet diktadoreak boterea lortu eta egun batzuetara, hain zuzen.

Nerudaren heriotza min-biziak eragin zuela esan izan den arren, gorpua aztertzeo agindua eman du oraintsu epaile batek; poeta Pinocheten kideren batek erahil zuelako susmoak zabaldu baitira. Beste berrogehi urte baino lehen argituko ahal dira itsasoaz harantzko zein honantzko heriotza ilunak!

Bien bitartean, eta azken aldian guztiz kontrako mezuak jasotzen ari garen arren, honatx Nerudaren aldarriak: "Debekatuta dago arazoei irribarrerik ez egitea, desio duzunagatik ez borrokatzea, beldurragatik dena bertan behera uztea, zure ametsak errealitate ez bilakatzea". Debekatuta dago.

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 15 22:00etan
LOKALETIK AT: Drogeners + Kraussk + Pixontxis.
 KONTZERTUA. Doan.

OTSAILAK 21 20:00etan
BERBERTAN
 Urko Aristik Iñaki Perurenari

OTSAILAK 22 22:30ean
RAFA RUEDA eta XABIER MONTOIA. Kontzertua. 6 euro.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

MUNDUARI ITZULIA

Teatro Gorakada

6 urtetik aurrera

Otsailak 17 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
 DURANGOKO UDALA

> LIBURU ETA DISKO AZOKA

“Boterekeria” egotzi dio Aiert Goenagak Gerediaga elkarteari

Durangoko Azokaren zuzendari izan da Goenaga; ez diote kontratua berritu

Eguazten goizean zabaldu zuten albistea: Aiert Goenaga Durangoko Liburu eta Disko Azokaren zuzendariaren kontratua ez berritzea erabaki du Gerediaga Elkarteak. Iluntzean etorri zen Gerediaga Elkartearen azalpena, eta atzo goizean zabaldu zuen Aiert Goenagak bere adierazpena. Tartean, sare sozialetan jarraipen zabala izan zuen albistea. Hain zuzen, berriak “euska kultur gintzan eragin duen kezka” jakitun dela dio Gerediagak. “Erabakia errespetuz hartzea” ere eskatu dute, baina.

Durangoko Azokako guneetako kideek, bestalde, eurekin bilteza eskatu zioten Gerediagari, eta atzo elkartu ziren.


Iaz zuzendari kargua hartu zuen Goenagak ez duela elkar-

teagaz “zintzo jokatu”, ere badio Gerediagak. Durangoko Azoka “lan talde osoak” egiten duela azpimarratu, eta azken urteetan “urratzen hasitako bideari eutsiko” diotela dio Gerediagak: “Elkarlanean jarraituko dugu kultur eragile guztiekin”. Iaz abiatu zuten, eta kultur eragile horiek osatzen duten Koordinazio Mahaiak jarraipena izango duela segurtatu du elkarteak.

Berriak “euska kultur gintzan eragin duen kezka” jakitun da Gerediaga, baina erabakia errespetatzeko dio

Gerediaga Elkartearen “akuzazio larria” erantzunez, orri biko idatzia helarazi zuen atzo Aiert Goenaga 2012ko Durangoko Liburu eta Disko Azokako zuzendariak. Besteak beste, Gerediaga Elkarteak bere kontratua ez luzatzearen arrazoia “boterekeria” dela dio Goenagak.

“Euskal kultur gintzaren kate osoaren hausnarketa estrategikoak hala eskatzen zuelako bultzatutako eredu partehartzaile horizontalaren eta eredu bertikal zaharkituaren talka” da, Goenagaren berbetan, bere kontratua eteteko erabakiaren arrazoia: “Gerediaga elkartearen zuzendaritzak Azokaren kontrol osoa izatearen sentsazioa berreskuratzeko hartu du erabakia”, esan du Goenagak.

**> MUSIKA**

‘Lokaletik at’ ekimenari esker, Plateruenean joko dute, hiru taldek gaur

Elorrioko Pixontxis laukotea, Mutrikuko Kraussk taldea eta Drongenerds ariko dira Plateruenean



Elorrioko Sugoi taldeak urtarrilean jo zuten ‘Lokaletik At’ ekimenaren barruan.

Platerueneko *Lokaletik At* ekimenaren barruan joko du, Elorrioko Pixontxis taldeak, gaur. Punk rock doinuak eskainiko dituzte elorriarrek, Platerueneko talde gazteentzako hitzordu horretan. Elorriokoekin batera, Mutrikuko Kraussk, eta Ondarroako Drongenerds taldeek ere joko dute, gaur, Plateruenean.

Bertako talde hasiberri eta gazteei Durangoko areto horretan zuzenean aritzeko aukera eskaintzen die *Lokaletik At* ekimenak. Plateruenean jotzeko aukera horrek, kontzertua prestatzeko soinua proba profesionalak egiteko aukera ematen die, besteak beste, parte hartzaileei.

Durangaldeko talde berrientzako aukera izateko jaio zen *Lo-*

kaletik At, baina azkenean, Euskal Herriko beste herrietako taldeei ere zabaldu dizkiete ateak.

Parte hartzeko bidea

Platerueneko oholtzatik zuzenean jarduteko aukera aprobe txatu gura duten musika talde gazteek Durangoko Plateruenera idatzita egin dezakete eskaria: kultura@plateruena.net helbidean eman daiteke izena.

Irailean egin zuten lehenengo emanaldia, eta Durangaldeko hainbat taldek jo dute dagoeneko, *Lokaletik At* saioan: Iurretako Krome, Berrizko The Greg’s Murder, Durangoko The Mockers, Abadiñoko Zarraparra eta Elorrioko Sugoi eta Txabolakumeak taldeek.

> ARGAZKIAK

Paisaiak eta zaldiak, Durangon zabaldu dituzten erakusketetan

Museoan dago Madariagaren lana; Gora Gora tabernan Aldekoa-Otalorarena

Argazki erakusketa bi izango dira datozen asteetan, Durangon ikusgai. Batetik, Durangoko Arte eta Historia Museora ekarri dituzte Jose Felix Madariaga Arrigorriagako argazkilariaren lanak, eta bestetik, Tabira auzoko Gora Gora tabernan ipini ditu Goiuri Aldekoa-Otalora Durangoko argazkilariak bere sei argazki ikusgai.

Joan zen barikuan zabaldu zuten Durangoko Arte eta Historia Museoko Jose Felix Madariaga argazkilariaren erakusketa, eta martxoaren 3ra arte edukiko dute erakusketa Durangon.

Euskal Herriko paisaien koloretako argazkiak bildu ditu Madariagak: hondartzan zein mendian hartutakoak

Hemendik izenburua du Madariagaren erakusketak, eta Euskal Herriko paisaien koloretako argazkiak biltzen ditu: hondartzan, hirian zein mendian hartutakoak dira erakusketan batutako argazkiak.

Tartean, Oizko parke eolikoan egindako argazki bat ere badago. Kostako ilunabarrak zein mendiko neguko elurrak jantzitako paisajeak eskaintzen dizkio bisitariari Madariagak erakusketa honetan.

Zaldiak erakusketa ipini du Goiuri Aldekoa-Otalora argazkilari durangarrak, Tabirako Gora Gora tabernan. Mihise gaineko argazkiak dira erakusketakoak, egileak azaldu duenez, formatu txikikoak eta 2012an egindakoak, gehienak. *Zaldiak* dira argazki guztietan protagonista. Bi hilabetez egongo da erakusketa Gora Gora tabernan.

Mendiko ibilaldietan topatu eta argazkietan harrapatu ditu Goiuri Aldekoa-Otalorak zaldiok: “Estetikoki oso animalia polita iruditzen zait”, azaldu du

egileak zaldiak izatea argazki guztietako gaia.

Argazkietan “ukitu mistiko, oniriko, magiko, ipuinetako modukoa” jaso gura izan duela kontatu du Aldekoa-Otalorak.

Gora Gora tabernan ikusgai ipintzeaz gainera, bestelako argazkigintzako lanak ere egiten ditu Goiuri Aldekoa-Otalorak: erretratuak egiten ditu, bai eta bestelako enkarguak ere: www.keixakloran.blogspot eta www.flickr.com/photos/aldekoa-otalora helbideetan dago bere ibilbidea ikusgai.



> AUZORIK AUZO**> Aisialdia**

Okango auzoa bitan zatitzeko puntuan izan zen orain 85 urte

Berriz eta Zaldibarko herriguneak ezker-eskuin dituela, bien arteko gorune berdean dago Okango. Berrizko auzoko baserri batzuek Zaldibarrera batzeko saiakera egin zuten 1928an

> JOSEBA DERTEANO

Berriz eta Zaldibar alde banatara dituela, Okangoko auzobideak herrigune bietara du irteera. Belardi zabaletan barreiatutako baserri klasiko eta eraberri-tuetako bizilagunek ia distantzia berera dituzte herrigune biak. Okango Berrizko sei auzoetako bat da, baina orain 85 urte auzoa bitan zatitzeko zorian egon zen, 14 baserriek Zaldibarrera pasatzeko ahalegina egin zutelako.

1928an gertatu zen, Espainian Primo de Riveraren diktadura indarrean zegoenean. Okango auzoko basetxe batzuk Berrizko udalerritik banantzeko prozesua prestatzen hasi ziren. Sasoi hartako Juan Unzueta, Luis Lazpitak eta Segundo Oiartzunek hasitako espedientearen helburua, hain zuzen, elizak Zaldibarkoak ziren 14 baserri eta bertako 141 biztanleak Berriztik banantzea izan zen. Balendin Lasuen zaldibartarrak ja-

so du istorioa, herriko historia eta kuriositateak batuz argitaratuta duen bildumako 13. liburuxkan, *Auzoetako basetxe eta sendiak* izenekoan.

Sasoi hartako Berrizko Udalak banantzearen aurka agertzeko honako argudio hau erabili zuen: hori gertatzen bazen, herriko biztanle kopurua 2.000tik behera geratuko zela, eta, ondorioz, ezingo zituztela jaso estatuak biztanle kopuru horretatik gorako udalerrei ematen zizkien hobariak. Baina garai hartan, Berrizek 2.213 biztanle zituen, eta banatu gura zuten 14 baserrietako 141 biztanleak kenduta 2.072an geratuko zen, legeak eskatutako kopurutik gora, hain zuzen.

Beraz, Lasuenek kontatzen duenez, banantzea saihesteko, “banaketa eskatzen eben basetxeen jabeengana joan ziren, bertan bizi ziren maizterrak bildurtzeko”. Azkenean, “presioen” ondo-

rioz, hainbat maizterrek euren sinaduragaz ezetz esan zioten banantzeko egitasmoari. Hala ere, Zaldibarko herriak Okangoko umeei Zaldibarko eskolera joaten uzten jarraitu zuen, aspalditik egiten zuten moduan, Bizkaiko Aldundiak 1935ean Uribeko auzo eskola eraiki zuen arte.

Baseliza eta jaiak

Berrizko Udaleko iturrien arabera, Okango auzoak 166 biztanle ditu gaur egun, eta kuriositate moduan aipatu emakumeen zein gizonen kopurua berdina dela: 83na.

Okangoko baselizak San Migel du izena, eta gotiko sasoiako arrasto gutxi batzuei eusten die oraindik. Auzoetako ohiko baselizak baino handiagoa da tainaz eta eraberri-tua dago. Auzoko jaiak irailaren 29an, San Migel egunez, ospatzen dituzte.

ZER IKUSI



San Migel baseliza



San Migel baselizako bolatokia.



Okango auzoko larreak eta baserri bat.

laguntzaileak



> SASKIBALOIA

Azken urteetako boladarik onenean dabilzala bisitatuko dute lider ahaltsua

Tabirako Baqueko emakumeek sei garaipen daramatzate segidan. Alberto Molinak taldea gidatzen duen lau urteetako boladarik onena da, eta Bera Beraren aurka ezustea emateko prest daude



Ane Garitagoitia kenduta, gainerako jokalariek guztiak Bera Beraren aurka jokatzeko moduan ditu Alberto Molina entrenatzaileak.

JOSEBA DERTEANO

Pazientzia bere fruituak ematen arida. Jokalari berriekin eta gazteekin taldelehiakorragetik denbora eskatu zuen Alberto Molina entrenatzaileak denboraldi hasieran. Lehenengo itzulian, boladonaketa txarrak tartekatuz zituzten, harik eta aben-

duan DPI Cambio menderatu (58-51) zuten arte. Harrezkero, jokatu guztiak irabazi egin dituzte: guztira, sei garaipen erreskan. Tabirako Baqueko emakumeek honetan duen konfiantzaren adibide garbia izan zen joan zen asteburuan Ardoiren kontra jokatu zuten norgehia-

goka. Partidu osoan irabazten joan ostean Ardoik berdintzea lortu zuenean, Tabirakoko jokalariek ez ziren kokildu, eta orduan erakutsi zuten zehaztasunik handiena: "Sarritan atzetik datorrenak harrapatzen zaituztenean, besoa uzkurto egiten da, baina une honetan taldea kon-

fiantza askogaz dabil", adierazi du Alberto Molinak.

Sailkapeneko laugarren postuan daude orain. Multzoko *play off*-a jokatzeko aukera emango liekeen aurreneko bost postuetan geratzea dute helburu. Asteburuan, Bera Beraren kontra, "ez dugu zer galdurik".

Orain arteko 16 partiduetan irabazi dituen taldearen kontra amore eman behar izatea normalean litzateke, baina "despistatzen badira, gu aprobetxatzeko gogoz gaude".

Tabirako Baqueko junior taldea ere maila handian dabil. Lau garaipen daramatzate segidan. Talde horretako jokalariek (Gorane Urain, Mirari Aldekoa, Ainhoa Baque eta Ane Garitagoitia) nagusiekin entrenatzen ari dira eta, txandaka, partiduetara ere joaten dira. Zorritzarrez, Garitagoitia meniskotik lesionatu egin zen eta astelehen honetan egin diote ebakuntza.

A. Molina: "Bera Beran ez dugu zer galdurik. Aprobetxatzeko gogoz gaude, despistatzen badira"

Gizonek, kontrako bidea

Emakumeen kontrako norabidea darama gizonen talde nagusiak. Lehen itzuli ikusgarri baten ostean, 2013a hasi denetik burua jaso ezinda dabilza: lau porrot segidan.

Lesioak, jokalarien laneko konpromisoak, jaurtiketa libreetan asmatu ezinak (azken partiduetan %60 inguruko portzentajeetan ibili dira arlo horretan)... Hainbat faktorek eragin dute, tartean "apur bat erlaxatu" egin direla ere uste du Tomas de Castro talde nagusiko entrenatzaileak.

> KROSA

Lekunberri kros luzeko Euskadiko txapeldun

Amorebieta-Etxanoko lasterketan gazte mailan irabazi zuen. Izaro Telleria podiumean sartu zen

Jauregiberria inguruko zirkuitu lokaltan ez zen espero bezain emankorra izan Durangaldeko klubentzat. Emakumeen jubenil mailan lortu ziren emaitzarik onenak. Bidezabal klubeko Garazi Lekunberri Euskadiko txapeldun geratu zen, eta Izaro Telleria (Durango Kirol Kluba) hirugarren. Laster, Espainiako txapelketa jokatu da, eta biek ala biek sobera meritua egin dituzte Euskadiko selekzioarako hautatuak izateko.

Emakumeen kadete mailan, Bidezabalek taldekako sailkapena irabazi zuen Olaia Lekunberri (laugarren), Naroa Martinez (bosgarren) eta Nerea Costaren

(zazpigarren) lanari esker. Azpimarratzeko moduko lasterketa osatu zuen Alejandro Bilbaok ere, eta hirugarren sailkatu zen gizonen kadete mailan.

Garcia eta Solar

Emakumeen elite mailan Iraia Garcia (Bidezabal) Euskadiko azpitxapeldun geratu zen, Belit Solar taldekidearen aurretik. Gizonetan David Garciak (Durango Kirol Kluba) lasterketa utzi egin behar izan zuen, sukarraren ondorioz. Ustekabeko emaitza txar horrek ez lioke eragotzi behar Espainiako txapelketarako partaidetza, goi mailako denboraldia osatu duelako.



> XAKEA

Bidearen erdira igotzeko aukera handiekin heldu da Zaldi Baltza

Maila gorenean talde bat igoko da, eta Elorrioko taldea bigarren dago, liderrarengandik 1,5 puntura. Zapatuan, etxean, Sestao azken sailkatuari irabazten eta Rey Ardidi presioa sartzen saiatuko da



Joan zen asteburuan, Bilbon, Rey Ardiden aurka Zaldi Baltzak jokatutako partidetak irudia. Zaldi Baltza

> JOSEBA DERTEANO

Euskadiko eta Bizkaiko klubaren arteko xake liga bigarren itzulian sartu berri denean, Elorrioko Zaldi Baltza da indartsuen dabilen Durangaldeko taldea. Denboraldi hasieran mailari eustea zuten helburu, baina mailaz igotzeko aukera garbiekin heldu dira bide erdira.

Maila gorenean garesti dago igoera. Alde batetik, talde bakarra igoko da. Bestetik, puntu eta erdiaren barruan daude bost talde. Beraz, Zaldi Baltzak Rey Ardid liderrean du begi bat, eta atzetik orpoz orpo dituzten aurkarietan bestea.

Hain liga estuan, puntuak batzeko edozein aukera ahalik eta

Aitor Arabiotorre: "Gure ligan parekotasun handia dago. Edozein talde da ezustea emateko kapaz"

Zaldi Baltzak Rey Ardid liderrean du begi bat, eta orpoz orpo dituen arierioetan bestea

gehien aprobetxatu beharra dago. Zapatuan, Sestao azken sailkatuak bisitatuko du Elorrioko kirol etxea, eta helburua ez da irabaztea bakarrik. Ahal den punturik gehien batzen saiatu behar dira, Rey Ardid presioa egiteko eta atzekoekiko alde areagotzeko. Esatea errazagoa da egitea baino: "Sestao azkenengo dago, baina gure ligan parekotasun handia ikusten dugu. Edozein talde da ezustekoa emateko kapaz. Kontzentrazio osoz jokatu beharko dugu", adierazi du Aitor Arabiotorre Zaldi Baltzako xakelariak.

Elorrioko taldea maila denean dabil fin. Zaldi Baltza B bigarren erregionaleko lider dago,

eta puntu biko alde du Gurutzeta eta Zornotza Brekiko. Alde polita da, baina ez lo hartzeko modukoa.

Abadiño, taularen erdian

Abadiño da Durangaldean mailarik altuena duen xake taldea. Lehenengo mailan gorengo borrokan egotea dute helburu, eta momentuz aurreikuspenak ez dituzte bete. Hamar taldeko ligan seigarren postuan daude, eta nahiko urrun dituzte igoera postuak.

Azkenik, Durangoko Larrasoloeta sailkapenaren erdian dago, lehenengo erregionalean. Maila horretan ere puntu gutxiren barruan daude hainbat talde.

ADITUAREN TXOKOA



Garazi Boveda

Futbol jokalaria

Itxura aldaketak

Urteak joan, urteak etorri, gizar-tean gauzak aldatuz doazela inork ez du dudanjartzen, horien artean jantzeko moda. Adibidez, pentsaezina zaigu gure gurasoek gaztetan jantzen zuten arropa egun geuk eroatea. Aldaketa kirol jantzi eta osagarrietan ere gertatu da.

Orain dela urte batzuk igerilariak eramaten zituzten bainujantzi txiki haiek ia gorputz osoa estaltzen duten eta material ultrarinez eginiko jantziez ordezkatu dira. Futbolariak praka labur-laburrak ia aldaketaraino igota jolasten zuten garaiak jendearen memorian eta zuri-beltzeko argazkietan bakarrik geratzen dira jada. Atezainek euren orain dela urte batzuk ekipazio beltzera kondatutako diseinu askotariko koloretako elastiko eta jertseak darabiltzate. Nork imajinatuko luke, adibidez, gure Txopoa gaur egun beste atezain batzuek erabiltzen dituzten elastiko arrosaz jantzita. Teknologia eta material berriek dakartzaten hobekuntza eta erosotasunak eta gaur egun itxurari ematen zaion garrantziak kirol arroparen merkatu zabala eka-rritu du.

Geuk ere, beharbada telebistan ikusten ditugun izarren eta publizitatearen eraginez, zelaira irtetearen gehiago edo gutxiago gure itxura zaintzen dugu. Kamiseta praken kanpotik edo barrutik eraman, zer bota erosi, ilea batuta edo solte eraman...

Garaiak aldatuz doaz, eta garaierri berrietara egokitzen gara. Hori bai, kalean zein zelaietan gure itxurak beti erakusten dituzte gure izaeraren ttanttakak.

> FUTBOLA

Dinamo Tbilisi taldeagaz entrenatzen dabil Ustaritz jokalaria

> JOSEBA DERTEANO

Ustaritz Aldekoa-Otalora futbol jokalaria abadiñarra Georgiako Dinamo Tbilisi taldeagaz entrenatzen ari da. Dena ondo bada eta gustura sentitzen bada, eurekin sinatuko du kontratua: "Dinamo Tbilisigaz entrena-

tzen nabil, baina oraingoz ez dut kontraturik sinatu", adierazi du Aldekoa-Otalorak. Athleticekin zuten kontratua alde bien arteko adostasunagaz bertan behera geratu zenetik (2012ko abuztuan), kontraturik barik zegoen bihar 30 urte beteko dituen abadiñarra.

Ustaritzek Baskoniatik eman zuten Athleticerako saltoa. Bilboko klubarekin 157 partidu jokatu zituen hainbat urtetan. 2011/12 denboraldian Betisen jokatu zuen, utzita.

> TXIRRINDULARITZA

Lejarreta gogoratzeko 250 zigilu egin dituzte

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak 250 zigilu ateratu ditu Iñaki Lejarretaren omenez

> JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak 250 zigilu aterako ditu, abenduan auto batek harrapatuta hil zen Iñaki Lejarreta gogoratzeko. Zigiluek Lejarretaren irudia dute, eta gutxigo-

rabehera astebete barru helduko zaizkie. Dagoeneko egin daitezke eskariak Federaziora deituta eta bertako webgunera sartuta: www.febici.org. Eskaria handia bada, zigilu gehiago aterako dituzte.



> PILOTA

“Aimar eta biok gero eta hobeto elkar hartzen dugu kantxa barruan”

Txapelketa erdia joan denean, Ibai Zabala eta Aimar Olaizola sailkapenaren goiko aldean daude



Ibai Zabala, txapelketako une batean.

JOSEBA DERTEANO

Binakako pilota txapelketako bigarren itzuliari ekin berri diote-nean, Ibai Zabala eta Aimar Olaizola sailkapenaren goialdean daude. Berriztarrak lehenengo aldia du txapelketa nagusian, eta gustura dago bere jardunagaz. Sailkapenean gorabeherak izan dituzte, baina jokoan maila erregularra erakusten dabilzala deritzo. Eta markagailuei erreparatu zuten gero, arrazoia du. Galdutako hiru partiduetatik bitan, gutxienez, 19 tanto egin dituzte. Irujo eta Zabaletaren aurkakoan 16an geratu ziren. Garaipenak heltzen joan diren heinean, aldeko tanto kopuruak balioa hartu du. Berriztarrak eta goizuetarrak aldeko 33 tanto dituzte, eta garaipen-tanberdinduta dauden Bengoetxea VI.ak eta Beroizek kontrako lau. Bikote bien artean 37 tantoko aldea dago egun, eta hori alde ede-

“Kantxan barruan beragaz jokatzeko luxua bada, handik kanpora ere bai. Oso pertsona eramangarria da”

rra da berdinketaren kasua gertatuko balitz.

Zapatuan, Titin III.a eta Merino izango dituzte aurkari. Eguaztenean baztertu zituzten pilotak: “Guk azpitik ibiltzen direnak aukeratu ditugu, eta beraiek azkarragoak. Gustura gaude saskian aurkitu genuenarekin”, dio Zabalak.

“Zapaturako azpitik ibiltzen diren pilotak aukeratu ditugu. Gustura gaude saskian aurkitu dugunarekin”

Txapelketa hasieran “urduritasunak eta presioak” eragin zion onartu du, baina apurka asentatzen joan da eta orain konfiantzaz dabilela dio.

Aimarrekin ez du batere arazorik: “Oso pertsona eramangarria da. Kantxa barruan beragaz jokatzeko luxua bat da, kantxatik kanpora ere bai. Eskua lesionatu nuen, deitu egin zidan zelan nengoen galdetzeko. Gainera, orain partidu batzuk elkarrekin jokatu ditugunez, gero eta hobeto elkar hartzen dugu kantxan”.

> TXIRRINDULARITZA

Fuentes ez zuela ezagutzen segurtatu du Etxebarriak

> JOSEBA DERTEANO

Martitzenean, *Puerto Operazioa*-ren epaiketaren barruan, David Etxebarriak, Joseba Belokik eta Unai Osak deklaratu zuten. Etxebarria abadiñarrak adierazi zuen berak ez zuela sekula ezelako trataturik eduki Eufemiano Fuentesegaz, eta ez ziola egundo odolik atera. Gehitu zenez, 2006an, *Puerto Operazioa* hasi zenean, bere ADNaren lagina emateko prest zegoela ere jakinarazi zien UCIRI eta Espainiako Txirrindularitza Federazioari. *Puerto Operazioa* eztanda egin zuenean, Liberty taldean zebilen txirrindulari abadiñarra.

Osa eta Beloki

Joseba Beloki txirrindulari ohiak ere ezeztatu egin zuen Eufemiano Fuentes ezagutzen zuenik, eta ondorioz, inoiz odolik atera zionik ere bai. Azkenik, bide bereko adierazpenak egin zituen Unai Osa txirrindulari ohiak ere, eta Fuentes ez zuela ezagutzen adierazi zuen.

> MENDI LASTERKETAK

Iturrietagaz batera, Urkiola korrika zeharkatzeko

> MARKEL ONAINDIA

Zornotza Mendi Taldeak irteera berezia eratu du otsailaren 24rako. Zigor Iturrieta mendiko korrikariagaz batera Urkiola zeharkatzeko proposatu dute. 30 kilometroko ibilbidea izango da, Otxandion hasi Zornotzan amaituko dena. Goizeko 07:30ean Zornotzan elkartuko dira lasterkariak, eta autobusez joango dira Otxandioraino. Norberak eroan beharko ditu ura, jatekoa eta beharrezko beste gauzak.

Antolatzaileek azaldu dute erritmo lasaian egingo dutela korrika saioa. Laster hasiko da mendi lasterketan aurretik taldeko irteera bat egin gura izan dute.

Iturrieta ibilbide luzeetako mendi korrikalaria da, eta gaur egun, The North Face taldean dabil. Ultratrailei dagokienez, onenen artean dago mundu mailan.

> AUTOMOBILISMOA

F3 txapelketarako lehen testa Urienek

Asteburuan hasiko da F3-ko kotxeagaz Urien, bihar eta etziko Winter Series lasterketan

Igor Urien auto gidari abadiñarrak bihar gidatuko du lasterketa batean lehenengoz, F3-ko aurtengo autoa. Lehiaketa ofiziala apirilean hasiko bada ere, bihar eta etziko Winter Series lasterketan parte hartuko du Frantziar, eta auto berriagaz lehian zelan moldatzen den ikusi ahal izango du. Prestaketarako lasterketak izango dira, eta martxoan lehenengo asteburuan ere gauza bera egiteko auke-

ra izango dute Xerezen. Gero, F3-ko European Opena hasiko da apirilean. Urienek esan du hasteko irrikaz dagoela: “Usted dut European Openean parte hartzea jauzi garrantzitsua izango dela nire ibilbidean”.

Aurten Emilio de Villotaren taldean ibiliko da Urien, eta hiru denboralditan aurrerapausoak ematen joatea du helburu, F3-ko maila gorenera ailegatzeko.



> AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA**Durango Kulturala-Portugalete**

· Zapatuan, 17:00etan, Tabira futbol zelaian

OHOREZKO MAILA**Elorrio-Moraza**

· Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**Abadiño-Ugeraga B**

· Zapatuan, 16:15ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA**Zaldia B-****Lipa Amorebieta**

· Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian

Iurretako B-Ermua B

· Zapatuan, 17:45ean, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**Iurretako-****Erandioko Betiko neskak**

· Zapatuan, 15:30ean, Larrakozelain

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA**Mallabia-Egintza**

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian

EUSKAL LIGA**Abadiño Lagun-Saltzaileak Alkideba**

· Domekan, 11:50ean, Berrizko kiroldegian

Kurutziaga-Uxoa

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

MAILA GORENA**Presion Break-Iturritxu**

· Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA**Elorrioko B-Freunde**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

Sapuberri-Sumi Muguru

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

Dantzari-Abadiño Gaztetxe

· Zapatuan, 17:30ean, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan

BIGARREN ERREGIONALA**Racing Tolosto-Egartsuak**

· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA**Sasikoa-Goiztiri**

· Domekan, 11:00etan, Landako kiroldegian

> SASKIBALOIA

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA**Tabirako Baque-Askarta**

Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA**Anbotopeko-Balmaseda**

Zapatuan, 18:00etan, Tabirako kiroldegian

> ERRUGBIA

ERRUGBI ESKOLAK**14 urtez azpikoak:**

Zapatuan, 10:00etan, Durango Aripausuetan

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behe • 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Ask. etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrek hainbat etxebizitza alokairuan

MATIENA-ABADIÑO

- 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 2 komun. 2 terraza.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ASTXIKI: 2 logela, komuna, egongela balkoiarekin eta sukaldea. Ganbara eta garajea. 190.000 €.
- ARTEKALE: 8 etxebizitzen eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrek. Trastelekuarekin. 140.000 €-tik aurrera.
- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trasteleku. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizatzeko. 114.000euro.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trasteleku.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trasteleku eta garajea.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerileku eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trasteleku eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trasteleku.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitze aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitze 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia bifamiliarra eraikitze. Proiektua barne.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuk eraikitzen.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTZO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTZO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatze.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatze. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatze. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trasteleku.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONGO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trasteleku.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trasteleku.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/ trasteleku eta sotoa.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztatua).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztatua eta erdi jantzia).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantzia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantzia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldea, eskegitokia, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trasteleku.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ASKATASUN ETORBIDEA: promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak. Logela bakarra garajea eta ganbarekin 185.000euro + BEZ
2 logela garajea eta ganbarekin 233.000euro + BEZ
3 logela garajea eta ganbarekin 290.000euro + BEZ
- EZKURDI: Estreinatze. Viviendas de Vizcaya. Azkeneko etxebizitza salgai. 3 logela. 268.000euro. Garajea eta ganbara.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. 93 m2. Atikoa. 3 logela. 75 m2-ko terraza. Ikuspegi ederra.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. Beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje itxia.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 108 m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitza guztian zehar.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Erdi berria.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara. Prezio onean.
- ZABALE: 99 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Balkoia eta garajea. Trasteleku aukeran.
- ZABALE: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta balkoia. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora jotzen du. Zatoz ikustera!
- SAN ROKE: 80 m2. 3 logela, egongela eta sukalde jantzia balkoiarekin. Beste balkoi bat hegoaldera. Ganbara handia. Guztiz berriztatua.
- HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politak.
- ANDRA MARI: 180 m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 175 m2. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 4 komun. Trasteleku.
- PLATERUEN PLAZA: 97 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea, trasteleku eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.
- MURUETA TORRE: (Viviendas de Vizcaya) 83 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garajea eta trasteleku. Etxe osoak kanpora jo du.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- LANDAKO: 80 m2. 2 logela, egongela balkoiarekin, 2 komun, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- LANDAKO: 134 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoi handia. Ganbara. Garajea aukeran.
- TABIRA: erdi berria. 50m2. Logela, egongela, sukalde jantzia, komuna, balkoia eta ganbara.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
